

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1707

572/2023 EBAZPENA, martxoaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez María Estrella Garrido Manzano andrea izendatzen den Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen zuzendari.

Ikusi da Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia, Zuzendaritza Nagusi honen otsailaren 8ko, 236/2023 Ebazpen bidez EHAA n argitaratua.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da; lanpostu horretan jarduteko izangaiak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, eta haren baldintza profesionalak baloratu dira aurkeztutako merezimenduen arabera.

Aurkeztutako agiriak aztertu ondore, ikusi da, María Estrella Garrido Manzano andrea deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Estrella Garrido Manzano andrea izendatzea Osakidetzako Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2023ko martxoaren 20tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.